- Urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretua, atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duena eta bera ezartzeko oinarrizko xedapenak finkatzen dituena.
- Uztailaren 28ko 22/2011 Legea, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.
- Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretua, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzeko Erregelamendua -zeina, aldi berean, industriako igorpenei buruzkoa baita- onartzekoa.
- Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.
- Otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretua, gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa.
- Martxoaren 13ko 180/2015 Errege Dekretua, Estatuko lurraldean zeharreko hondakin-garraioa arautzen duena.
- Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- Abenduaren 22ko 1042/2017 Errege Dekretua, errekontza ertaineko instalazioetatik datozen agente kutsatzaile zehatz batzuen atmosferarako igorpenak mugatzen dituena, eta airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legearen IV. eranskina eguneratzen duena.

### **2.2.3.- Autonomia-araudia**

- Otsailaren 27ko 3/1998 Legea, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra.
- Otsailaren 18ko 34/2003 Dekretua, altzairua arku elektrikoko labeen fabrikatzeak sorrarazten duen zepa baliaraztea eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora erabiltzea arautzen duena.
- Otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.
- Ekainaren 26ko 112/2012 Errege Dekretua, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzekoa.
- Ekainaren 25eko 4/2015 legea, lurzoruaren kutsadura prebenitzekoa eta zuzentzekoa.

### **2.2.4.- Sareak**

#### **2.2.4.1.- IMPEL**

Europar Batasunak, IMPEL Sarearen bidez (ingurumen-alorrean Europar Batasuneko legegintza aplikatu eta betearazteko Europar Batasuneko Sarea), estatu kide desberdinetan inplikaturako administrazio publikoek egindako ikuskapen eta kontrol jardueraren harmonizazioa sustatzen du.

IMPEL irabazi-asmorik gabeko nazioarteko elkarte bat da eta erakunde hauetako ingurumen-agintaritzek osatzen dute: Europar Batasuneko estatu kideak, herrialde hautagaiak, EBren hautagaiak izan daitezkeenak, Europako Esparru Ekonomikoa (EEE) eta Europako Merkataritza Askearen Elkarte (AELC).

Elkartea 1992an sortu zen eta bere egoitza soziala Bruselan dago. Gaur egun, IMPELek 36 herrialdetako 51 kide ditu, horien artean daude hauek: EBren estatu kideak, Mazedoniako Jugoslaviako Errepublika ohia, Serbia, Turkia, Islandia, Kosovo, Albania, Suitza eta Norvegia.

Ikuskapen Zerbitzua IMPELeko kidea da 2006az geroztik eta, ordutik, Europako esparruan garatu diren proiektuetan parte hartu du. Proiektu horien helburua erabat praktikoa da, ikuskapenaren eguneroko lanetara bideratua (ikuskapenaren plangintza, ikuskapen-metodologiak, araudia betetzen dela egiaztatzeko irizpideak,...).

Sareak bere lana gai desberdinekin erlazionatutako proiektuen bidez garatzen du. Ingurumen-ikuskapenekin lotuta estatu parte-hartzaileen artean lankidetzatza estutzera eta trukea sustatzera bideratutako proiektu asko gauzatu dira.

Horrela, IMPELek ereduak dokumentu ugari ditu ikuskapen plan eta programak landu eta ezartzeko; horien artean nabarmendu behar da Ingurumen Ikuskapena Planifikatzeko Gida, «*Doing the right things*» proiektuaren eta horrekin erlazionatutako ondorengo proiektuetan garatua. Hori da Emisio Industrialen Zuzentaraua ikuskapenak planifikatu eta gauzatzeari dagokionez ezartzeko gidaren kasua (*Guidance for the implementation of the IED in planning and execution of inspections*) edo Hondakin-lekualdaketen ikuskapenak egiteko gidaren kasua (*Doing the right Things for Waste Shipment Inspections*).

#### **2.2.4.2.- REDIA**

REDIA Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren eta autonomia-erkidegoko ingurumen-ikuskapenaren arduradunen artean lankidetzatza eta esperientziak trukatzeko sortu zen tresna bat da. Sare hau 2008. urtean sortu zen ingurumen-ikuskapena garatu eta etengabe hobetuta ingurumena babesten laguntzeko helburuarekin.

REDIA, beraz, autonomiaz gaindiko erakunde bat da; hala, bere estatutuak ditu eta horietan definitzen da sarean lan egiteko modua. Bere helburuen artean dago ingurumena ikuskatzeko sistemen antolamendua eta garapena hobetzen laguntzea, baita jardunbide egokietara bideratutako dokumentuak, gida, tresna eta estandar komunak sortzea ere, aktiboki lan egiteko ingurumen-ikuskapena hobetzen.

Sortu zenetik, REDIAk proiektu ugari gauzatu ditu, esanguratsuenen artean nabarmentzen dira Emisio Industrialen Zuzentarauaren (EIZ) ingurumen-ikuskapenekin erlazionatutako artikulak ezartzearekin zerikusia dutenak, esaterako:

- Testu bat lantzea EIZren 3. eta 23. artikuluen transposizioa egiteko.
- Eskema komun bat lantzea Ingurumena Ikuskatzeko Planak lantzeko.
- Plantila bat lantzea argitara emateko ikuskapen-txostenak.

### **3. 2019-2026 ALDIRAKO INGURUMENA IKUSKATU ETA KONTROLATZEKO PLANAREN APLIKAZIO-EREMUA**

---

#### **3.1. Lurralde-eremua**

Ingurumena Ikuskatzeko Plan horren eremu geografikoa, baita hori garatzen duten urteko Ingurumena Ikuskatu eta Kontrolatzeko Programena ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldea da.

#### **3.2 Eremu materiala**

Plan honek ingurumen-arauetan eskatzen diren baimen, lizentzia, jakinarazpen eta gainerako eskakizunetara mugatu behar du, baldin eta arau horien aplikazioan EAEko ingurumen-organoak badu eskumena edo kudeaketa-mandatu. Zehazki, ikuskapenek alderdi hauek hartu ahal izango dituzte aintzat:

- **Airea.** Airearen kalitateari buruzko legeria eta baimen-baldintzak kontrolatu eta ikuskatzea, edo jarduerak atmosferara igorpenak egiteari buruzko legedian ezarritakoak.
- **Hondakinak.** Indarrean dagoen legeria eta hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak kudeatu eta ekoizteko alorrean ezarritako baldintzak kontrolatu eta ikuskatzea.
- **Lurzoruaren kalitatea babestea.** Indarrean dagoen legeria kontrolatzea eta ikuskatzea, lurzoru kutsatuak edo eraldatuak berreskuratzeko neurriak gauzatzen diren lurzoruak lehenetsiz, baita lurzoru eraldatuak mugiaraziko dituzten jarduerak ere.
- **Zaratak eta dardarak.** Esklusiboki EJISk zaindu, kontrolatu eta ikuskatzeko eskumena duen jardueretan.
- **Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuak.** Jarduteko lizentziaren eta abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren (Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina eta bere garapen-araudia onartzen dituen) mendeko instalazioak kontrolatzea eta ikuskatzea, eta Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioaren ingurumen-prozedura desberdinetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea.
- **Ingurumen-kalteen arriskuak prebenitzea.**
- **Ura.** EJISk ikuskatu, zaindu eta kontrolatzeko eskumena duen jardueri lotutako hondakin-uren kudeaketara mugatzen da ikuskapena. Isuriaren puntuan, baimenean ezarritako mugak betetzen direla egiaztatzen da.

#### **3.3. Denbora-esparrua**

Planaren denbora-eremuak 2019tik 2026ra bitarteko aldia hartzen du eta Ingurumena Ikuskatu eta Kontrolatzeko urteko programen bidez gauzatuko da bere garapena. Horrela, ingurumena ikuskatzeko alorrean jarraitutasun-konpromiso bat ezarri da.

#### **3.4 Eskumen-esparrua**

EAEko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak ezartzen ditu EAEn ingurumen-ikuskapena egiteko oinarriak; horrela, ingurumen-organoari esleitzen dizkio organo horrek emandako baimenak, eta orokorrean prozedura horiek arautzen dituzten arauetan jasotako ingurumen-baldintzak betetzen direla egiaztatzeako eskumenak.

2016ko azaroaren 28an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretua argitaratu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko

administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena.

77/2017 Dekretuaren bidez, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen da. Sailari esleitutako gaien eta funtzioen kudeaketa efikazaren helburuak lortzea errazteko helburuarekin, sail horren egitura organikoa osatzen dute Ingurumen Sailburuordetzak, Lurralde Plangintzaren Sailburuordetzak eta Etxebizitza Sailburuordetzak.

Ingurumen Sailburuordetzari dagokionez, aipatu behar da Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak garatzen dituela, besteak beste, ingurumenean eragina duten jarduerak zaindu, ikuskatu eta kontrolatzeko arloko funtzioak eta Zuzendaritza horri dagokiola ingurumen-planak landu eta izapidetzea dagokion eskumen-alorrean.



## 4. HELBURUAK ETA ESTRATEGIA

---

### 4.1.- Ikuspegia

2020rako EA Eren Ingurumen Esparru Programarekin bat, Ingurumena Ikuskatu eta Kontrolatzeko Planaren ikuspegia hau da: **EAEko ingurumenaren babes-maila handia lortzea, ingurumeneko araudietan, baimenetan eta prozeduretan ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatuta.**

### 4.2 Helburu estrategikoak

**Arau hauek betetzen jarraitzea: Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2010eko azaroaren 24an igorpen industrialei buruz onartutako 2010/75/EB Zuzentarauaren 23. artikulua;** gure ordenamendura 5/2013 legeak ekarria, 16/2002 Legea aldatzen duenak (orain abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren Legearen testu bategina onartzen duena); eta 815/2013 Errege Dekretua, nazio, eskualde edo tokiko mailan instalazio guztiek ingurumena ikuskatzeko plan bat izatea eta plan hori berraztertzea eta, hala dagokionean, aldizka egunera dadila ezartzen duena.

**Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko ekainaren 14an hondakinak lekualdatzeari buruz onartutako 1013/2006 Erregelamenduaren 50. artikulua betetzea.** Erregelamendu hori 660/2014 Erregelamenduak (EB) sartu zuen eta azken Erregelamendu horrek ezartzen du, gehienez ere 2017ko urtarrilaren 1ean, estatu kideek ezarri izana bermatuko dutela, beren lurralde geografiko osorako, plan bat edo gehiago, hala bereizita nola beste plan batzuen zati jakin gisa, hondakinaren lekualdatzeak eta dagokien baliaraztea edo ezabaketa ikuskatzeko.

**Ingurumena ikuskatzeko sistema bat izatea, baliabide pertsonal eta materialen zuzkidura nahikoa eta egokia bermatuko duena, kontrol- eta ikuskapen-eginkizunak efikaziaz egiteko.**

**Baliabideak esleitzea lehentasunezko kudeaketa-sistema baten bidez.** 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren aplikazio-eremuaren mendeko instalazioak ikuskatzeko maiztasuna, ingurumen-arriskuak sistematikoki ebaluatzeko prozedura orokorra aplikatuta ezarriko da. Bestalde, hondakinak lekualdatzeari buruzko 1013/2006 (EE) Erregelamenduak ezartzen duen bezala, egin beharreko ikuskapenen gutxienezko kopurua arrisku-ebaluazio baten arabera zehaztuko da.

**Jardueren ingurumen-inpaktua murriztea** ingurumena hobetzeko ekintzen bidez, baimenetan txertatutako baldintzak betetzen direla egiaztatuta eta pertsona eta ingurumenean arrisku handiena dakarten horiek azpimarratuz.

Ingurumen Sailburuordetzaren eskumenekoak diren **ingurumeneko prozeduren eta baimenen ingurumen-segimenduaren jarduketak sustatzea**, ahaleginak bideratuta ingurumen-interes handieneko sektoreetara edo eremuetara, baldin eta kutsatzeko ahalmen handia badute edo horiei buruzko informazio mugatua edo eguneratu gabea badago.

**Prebentziozko ikuskapenaren ikuspegia indartzea.** Ikuspegi horrek autokontrolerako edo ingurumen-kudeaketako sistemak sustatuko ditu jardueretan.

**Lankidetzeta eta elkarlanerako mekanismoak ezartzea administrazio publiko eta eragile sozioekonomikoen artean.**

**Kalitatea, gaitasun teknikoa eta etengabeko hobekuntza sustatzea**, protokolo espezifikoak eta laguntza-dokumentuak landuz, behar diren baliabideak eskainiz ikuskapen-eginkizunak egiteko segurtasun- eta efikazia-baldintzetan, eta harremana

sendotuz interesdunekin bitarteko elektronikoen bidez, jarduketan gardentasuna izatea eta efikazia izatea nabarmenduz dokumentuak lantzean.

#### **4.3.- Planaren jarduketa-estrategiak**

Ingurumena Ikuskatzeko Planaren ildo estrategikoak hauek dira:

- *Bermatzea ingurumen-araudia betetzen dutela 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren mendeko enpresek. Dekretu horrek onartu egiten du kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren Legearen testu bategina.*

Plan honen xedea dela eta, bere helburu estrategikoen artean dago betetzea ingurumena ikuskatzeko alorrean araudi honek ezartzen dituen betebeharrak eta bereziki bermatzea araudi honen eremuaren barneko instalazio guztiek ingurumena ikuskatzeko plan bat dutela, eta ikuskapenen maiztasuna ingurumen-arriskuak era sistematikoan ebaluatzeko ereduetan oinarritzen dela.

Helburu horiek betetzat jotzen dira Plan hau eginda eta IRAM (Integrated Risk Assessment Method) METODOAREN BIDEZ INGURUMEN-ARRISKUEN EBALUAZIO SISTEMATIKORAKO PROZEDURA OROKORRA aplikatuta; izan ere, arriskurako ikuskapen-maiztasun proportzionatua ezartzen du metodo horrek.

Azkenik, adierazi behar da enpresa hauen helburua dela hasitako bidean aurrera egitea eta eurek beren gain hartzea ingurumen-araudia betetzen dela bermatzeko ardura, autokontrolaren bidez.

- *Hondakinak mugaz gaindiko lekualdatzeari eta alor horretan emandako administrazio-egintzetan ezarritako betekizunei buruzko araudia betetzen dela bermatzea, baita aplikatzen daitekeen araudiaren aurkako hondakinen mugaz gaindiko lekualdatze-jarduerak detektatzea ere, ingurumena eta gizakiaren osasuna babesten direla bermatzeko helburuarekin.*

Plan honek barnean hartzen du espezifikoki Europar Batasuneko herrialdeetatik edo herrialde horietara egiten diren hondakin-lekualdatzeen kontrola eta ikuskapena, kontuan izanda uztailaren 28ko 22/2011 Legearen (hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoaren) 12. artikuluan ezarritako eskumen-banaketa eta ezar daitezkeen erakundeen arteko lankidetzak.

Hondakinen mugaz gaindiko lekualdatzeen ikuskapenek helburu hauek izango dituzte, alde batera utzi gabe urteko programetan zehazten diren helburu espezifikoak:

- Hondakinak lekualdatzeko alorreko Europako araudian, zehazki 2006ko ekainaren 13ko 1013/2006 (EB) Erregelamenduan, ezarritako helburuak autonomia-erkidegoan bete daitezela sustatzea.
- Uztailaren 28ko 22/2011 Legean, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoan, ezarritako helburuak betetzea, hondakinak mugaz gaindi lekualdatzeari dagokionez.
- Hondakinen mugaz gaindiko lekualdatzei, balorizazioari edo deuseztatzeari aplikagarri zaien araudiaren betetze-maila egiaztatzea horretan diharduten establezimendu, enpresa, agente, negoziatzaile eta garraiolarietan.
- Araudiaren aurkako hondakinen mugaz gaindiko lekualdatzeak, baita hondakinen legez kontrako lekualdatzeak ere, detektatzea eta, kasua balitz, kontrolatzea, enfasi berezia jarriz ingurumenarekiko arrisku handiena dutenetan, kontuan izanda hondakinen kopuruak eta arriskugarritasuna, araudia gehien betetzen ez dutenak edo informazio gutxien eman dutenak.
- Legeria maila optimoan betetzea, bereziki, prebentzioaren eta informazioaren bidez.

Azken helburua da bermatzea araudia betetzen dela Europar Batasunaren lurraldean, eta ondorioz ziurtatzea ingurumena eta giza osasuna babesten direla.

Agintarien arteko elkarlan-tresnak zehaztea ezinbesteko alderdia da ikuskapenen efikazia hobetzeko. EA Eren eta Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren kasuan, ofizialki ezarritako moduan artikulatuko da. Dagokien agintari administratiboen arteko lankidetzak-mekanismoak Ikuskapen Plan honekiko independenteak diren prozeduretan garatuko dira eta horiek, kasua balitz, planaren zati izan daitezke.

Plana arrisku-ebaluazio batean oinarrituko da eta ebaluazio horren helburua izango da, besteak beste, eskatuko diren ikuskapenen gutxieneko kopurua zehaztea, establezimendu, enpresa, negoziatzaile eta hondakinen lekualdatzeetako edo dagokien balorizazio edo ezabaketako kontrol fisikoak barne.

- 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren mendekoak EZ diren enpresek ingurumen-araudia betetzen dutela bermatzea. Dekretu horrek onartu egiten du arrisku handieneko kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren Legearen testu bategina.

Aurreko Plana diagnostiko bat egiten ahalegindu zen gehienbat, ondoren, Ikuskapen Zerbitzuko baliabide mugatuak ingurumen-arrisku handieneko kasuen gaineko esku-hartze administratibora bidera zitezten.

Enpresa hauetan helburua da administrazioak esku hartzen jarraitzea arrisku handieneko kasuetan eta aurrera egitea enpresek autokontrolaren bidez ingurumen-araudia betetzen dutela bermatzeko arduran.

- Ingurumen-arrisku handieneko eta egun legeztatu gabeko jarduerak identifikatzea eta araupetzea.

Helburu hau betetzeak esan nahi du ingurumenaren ikuspuntutik legeztatuta ez dauden enpresak identifikatzea eta administrazioaren esku-hartzerik egokiena erabiltzea, kasu bakoitzean enpresa horiei araupetu daitezela eskatzeko. Horiei lotutako ingurumen-arriskua ikuskapenari lehentasuna emango zaio, araupetzeko.

- Euren kopurua edo arriskugarritasuna direla eta, ingurumenerako arrisku handiena duten hondakinen kudeaketa-araudia betetzea.

Ildo estrategiko hau betetzeko, egiaztatuko da hondakinen mugimenduak eta kudeaketak indarrean dagoen legeriak ezarritakoa betetzen dutela, hala hondakin arriskutsuen kasuan nola hondakin ez-arriskutsuen kasuan. Era berean, egiaztatuko da hondakinak kudeaketa-bide egokietara doazela.

- Ingurumenean eragina duten gertaerei eta istripuei buruzko abisuak, kexak eta salaketak kudeatzea.

Atal honetan segituko da aurreko Planetan hasi eta jarraitutako ildoarekin, gertaera-baieztapenean oinarritzen den jarduketa-protokolo batekin, ondoren egoera bakoitzaren urgentzia eta garrantziarekiko erantzun proportzionatu bat emateko.

- EAEko industria-jarduerei lotutako ingurumen-arazoak konpontzen edo kontrolatzen laguntzea.

Puntu honetan, konpondu edo kontrolatu beharreko problematikaren diagnostiko- eta karakterizazio-fase bat egingo da; ondoren, konpontzeko edo minimizatzeko ekintza zehatz efikazetak planteatu daitezke. Ikuskaritza Zerbitzuak eskura dituen ingurumenearen kalitate-informazioari buruzko sistema eguneratuetan oinarrituko da diagnostiko- eta karakterizazio-fasea, hala nola hainbat erakundek egindako

ikerlanetan eta zerbitzuak duen ingurumen-kalteen inguruko abisu, kexa eta gertaeren datu-basean.

- Ingurumen-interes bereziko eremuak babestea jardueri lotutako ingurumen-kalte potentzialen aurrean.

Ildo estrategiko horren bidez bermatu nahi da ingurumen-interes handiko eremuei eragiten zaien puntuetan kokatutako jarduerak araudia betetzen dutela, ikuskapenen bitartez.

- Zerbitzuaren ikuskaritza-gaitasuna handitzea.

Aldi honetan, jarraitu egingo da pertsonala prestatzen, prozesuak automatizatzen, Sailburuordetzaren zenbait zerbitzuri laguntza espezializatua eta laguntza teknikoa ematen, baita erregistratutako Ingurumen Lankidetzarako Erakundeei ere, kudeaketa-gomendioak, etab., eskura dauden baliabideak optimizatzeko helburuarekin.

- Ikuskaritzak Europaren arabera egitea, helburuei, estrategiari eta irizpideei dagokienez.

Aurreko Planetan ezarri zen bezala, orain ere ezarri da Ikuskaritza Zerbitzuak era aktiboan parte hartzea REDIA estatuko ikuskaritza-sarean eta IMPEL Europako sarean; horrela ziurtatuko da egindako ikuskaritza-jarduketek bat egiten dutela estatuan zein European egindakoeekin.

#### **4.4.- Ikuskaritza-estrategia**

##### **4.4.1.- Ikuskapen-antolamendua**

Ingurumena Ikuskatu eta Kontrolatzeko urte arteko Plan hau urteko programen bidez gauzatzeko moduan planteatu da. Hala, programa horietan finkatuko dira proiektuak, dagozkien urterako helburu espezifiko eta xedeekin, planaren ildo estrategikoetatik abiatuta.

Urteko programak hau guztia kontuan hartuta landuko dira: arriskuak ebaluatzeko prozedurak aplikatzearen ondoriozko emaitza, ingurune ko kalitateari buruzko informazio-sistemek (esaterako Airearen Kalitatea Zaindu eta Kontrolatzeko Sareak) emandako informazio-berrikuspena eta ingurumenean eragina duten gertaerei eta istripuei buruzko abisuak, kexak eta salaketak kudeatzean lortutako datuak.

Programa hauek proiektuen bidez gauzatzeko dira eta horietan jarduketa zehatzak zehaztuko dira programetan ezarritako helburu espezifikoak lortzeko.

Proiektuetan, ikuskapenaren mende jarriko diren jarduerak, teknikari arduraduna eta jarduera eta ikuskapenak egiteko epea ezarriko dira, baita proiektuaren kudeaketa-indizeak ere. Urteko programetan jaso gabeko proiektuetan, dagozkien helburu espezifiko eta xedeak ere zehaztuko dira.

Ingurumena Ikuskatu eta Kontrolatzeko Plan hau, aurreko plana bezala, dokumentu publiko bat izango da eta izapidetu egingo da Ingurumen Sailburuordetzaren ebazpen bidez onartzeko, aurrez Ingurumenerako Aholku Batzordeak eta Ingurumen Batzordeak txostena eginda.

Bestalde, urteko ikuskapen-programak eta horien memoriak Ingurumen Batzordeak egingo ditu ingurumenaren alorrean eskumena duen Sailburuordetzak onartu aurretik.

Azkenik, ingurumena ikuskatu eta kontrolatzeko funtzioak esleituta dituen Sailburuordetzaren Zuzendaritzak onartutako barneko lan-dokumentuak izango dira proiektuak.

#### **4.4.2.- Eskura dauden baliabideak**

##### **4.4.2.1.- Giza baliabideak**

Zaindu, kontrolatu eta ikuskatzeko funtzioak Ikuskapen Zerbitzuari esleitu zaizkio. Plan hau Ikuskapen Zerbitzuko funtzionarioek gauzatuko dute. Zerbitzu horrek arduradun bat, zortzi ikuskapen-teknikari, administrari laguntzaile bat eta zerbitzu juridikoaren laguntza ditu, ikuskapenaren eta ingurumen-diziplinaren arteko trantsizioa era koordinatuan egiteko helburuarekin.

Bi teknikari Bizkaiko bulegoan daude eta beste horrenbeste Gipuzkoakoan; aldiz, gainerakoak Lakuako bulego zentraletan daude. Lurralde-egitura mantendu egiten da lurralde bakoitzeko premiei erantzun azkar eta arina eman ahal izateko.

Urteko programak eskura dauden baliabideetara egokituko dira, eta sustatuko da baliabideen zuzkidura egoki bat mantentzea edo bestelako irtenbideak arbitratuko dira Planaren helburuak bete ahal izatera baliabide espezifikoagoak bideratzeko.

Ildo horretan, adierazi behar da zerbitzuan ez dagoenez giza baliabide egokirik, ezinbestean eskatzen duela kanpoko laguntza eginkizun osagarriak egiteko eta horrek bere aurrekontu-zuzkidura eskatzen duela. Urtero mantendu beharko da zuzkidura hori alor honetako organo eskudunak zerbitzuari giza baliabide egokiak ematen ez dizkion bitartean.

##### **4.4.2.2.- Baliabide materialak**

Plana gauzatzeko ardura duen Ikuskapen Zerbitzuak hauek guztiak ditu: ibilgailuak, lanerako arropa eta babes indibidualerako ekipamenduak, lekuan bertan laginak eta neurri jakin batzuk hartzeko oinarritzko materiala, baita plan honetan ezarritako helburuak lortzen laguntzen duten hardware eta software espezifikoaren baliabide informatikoak ere.

Laginak hartzeko eta horien analisiak egiteko, Ikuskaritza Zerbitzuak Baimendutako Kontrol Erakundearen eta egiaztatutako laborategien laguntza izaten jarraituko du.

Bestalde, egoera problematikoen karakterizaziorako, hauek guztiak ditu: konposatu organikoetarako analisi-ekipamendu aurreratua duten bi unitate mugikor, Airearen Kalitatea Zaindu eta Kontrolatzeko Sarearen neurri-estazio mugikor eta finkoak, baita inguruneke airearen laginak hartzeko baliabideak ere.

Osasun eta Kontsumo Sailaren Osasun Publikoaren Laborategia elkarlanean arituko da unitate mugikorak ustiatu eta mantentzeko.

Ikuskapen Plana gauzatzeko, Ikuskapen Zerbitzuak, halaber, aurrekontu bat du ikuskapen-laguntzako eginkizunak kontratatatzeko, adibidez: iturri kutsatzaileen esleipen-ikerlana, araudia bete dadila sustatzea, sektoreetako ingurumena ebaluatzea ikuskapena hasi aurretik eta ingurumenean eragin dezaketen gorabehera eta istripuetan sortutako abisu eta hondakinak kudeatzea, besteak beste.

##### **4.4.3.- Gaitasun teknikoa**

Kontrolatu eta ikuskatzeko jarduera teknikoak inplikaturik dauden pertsonen eta erakundearen behar besteko prestakuntzarekin egin behar dira.

Ildo horretan, prestakuntza-prozedurak gauza daitezela sustatzen jarraituko da Ikuskapen Zerbitzuaren orain arteko ildoarekin bat, Ikuskapen Zerbitzuko teknikarien prestakuntza-premiak identifikatuz.

Ikuskapen Zerbitzuan hasten diren langile berriek egin beharreko prestakuntza egokitu egingo da, oro har, langileek administrazio-prozeduretan eta, zehazki, ikuskapen-prozeduran duten esperientziara, baita ingurumen-bektore desberdinen alorrean duten prestakuntza teknikora ere.

#### **4.4.4.- Kudeaketa emaitzetan eta arriskuetan oinarrituta**

Ingurumena Ikuskatu eta Kontrolatzeko Plan horrek baliabideen kudeaketa-eredu batean oinarrituta egoten jarraitzen du. Eredu hori, era berean, ingurumen-emaitzetan eta ingurumen-arriskuen murrizketan oinarritzen da.

Ingurumena Kontrolatu eta Ikuskatzeko Aurreko Planean horrelako kudeaketa aplikatzeko esperientziatik egiaztatzen dugu hainbat zailtasun daudela ingurumen-emaitzen adierazleak era sistematikoan erabiltzeko; beraz, Plan honetan jarraituko dugu proiektu bakoitzari ingurumen-emaitzen adierazle espezifikoak ezartzen ezarritako helburuen eta xedeen arabera.

#### **4.4.5.- Kalitatea bermatzea**

Ikuskapen-arloko administrazioaren esku-hartzeen oinarri izan behar dira gai honetan prestigioa duten arauetan ezarritako kalitate-irizpideak.

Zerbitzuaren jarduketa-prozedurak lantzen jarraituko da sortutako akta, txosten eta proiektuen kalitate-kontrola ezarri eta gauzatzen den heinean.

#### **4.4.6.- Ingurumen-araudia bete dadila sustatzea**

Araudia era jarraituan bete dadila lortzeko, eta ikuskapenaren ikuspegi prebentiboa indartzea denez helburu estrategikoetarik bat, Plan horrek sustapena ikuskaritzaren jarduera osagarritzat hartzen jarraituko du.

Sustapen-jarduerak hauek izan daitezke: araudi berria hedatzea, araudia betetzen laguntzen duten tailerrak edo ikastaroak eta araudia betetzearen diagnostikoak.

## **5. JARDUERAK LEHENESTEA**

---

### **5.1.- Ikuskapen Zerbitzuaren funtzioak eta bere lehentasunak**

Ikuskapen Zerbitzuaren funtzioak talde hauetan sailkatzen dira:

- Abisuak eta larrialdiak kudeatzea
- Ingurumen-jarduerak eta -problematikak ikuskatzea
- Ingurumen-erantzukizunaren araudia aplikatzea

Abisuen eta larrialdien kudeaketak lehentasuna du gainerakoan aldean; hala, ikuskapena da zerbitzuaren hurrengo lehentasuna.

Kontuan izanda ikuskapen-ikuspuntuko prebentibo bat sustatzeko helburu estrategikoa eta Ikuskapen Zerbitzuaren baliabide mugatuak optimizatze aldera, lortu beharreko helburua da, ahal den heinean, jarduketa goiztiar bat gauzatzea ingurumen-problematikak edo kexak eta salaketak prebenitzeko.

### **5.2.- Ikuskapen-jarduerak eta bere lehentasunak**

Ikuskapen-jarduerak, 4.3 atalean zehaztutako planaren ildo estrategikoen arabera, honela taldekatu behar dira:

- a) Sektorialki programatutako ikuskapenak IPPC instalazioetan eta IPPC ez direnetan. Aurreikuspenen arabera, ikuskapen hauen esparruan sartuko dira ingurumen-araudia eta Ingurumen Erantzukizunaren Legea betetzen direla ikuskatzeko jarduerak.
- b) Hondakinen mugaz gaindiko lekualdaketen ikuskapena, baita Estatu barneko hondakinen lekualdaketen ere.
- c) Programatu gabeko ikuskapenei lotutako abisuen (kexak, salaketak, larrialdiak...) kudeaketa.
- d) Legezatu gabeko jarduerak identifikatu eta arautzeko ikuskapenak, baita hondakinak kudeatzeko araudia betetzen dela egiaztatzeko ere.
- e) Programatutako jarduerak eta ikuskapenak ingurumen-problematikak konpontzeko edo balio handiko baliabide naturalak babesteko.
- f) Batzorde teknikoetan parte hartzea (Trantsizio Ekologikorako Ministerioa, Babes Zibila, Segurtasun Industrialak), REDIA, IMPEL,...
- g) Zerbitzuaren kudeaketa: barne-prozedurak, tresna informatikoen garapena, prestakuntza, etab.

Ingurumenean eragina duten gertaeren eta istripuen abisuak, kexak eta salaketak kudeatzea lehentasunezko jardueratzat jotzen da gainerakoan aldean. Jarduera honek baliabide tekniko egokiak izango ditu une oro, eta kanpoko enpresen laguntza egokia.

Gainerako jardueren lehentasun-ordena hau da:

1. IPPC ikuskapenak eta hondakinen mugaz gaindiko lekualdaketen ikuskapenak, biak legezko betebeharrak batetik eratorritzen baitira. IPPC ikuskapenak Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legearen araudia betetzen dela egiaztatzeko ekintzak izango dituzte.
2. Ingurumen-problematikari lotutako ikuskapenak.
3. Ikuskapenak arautu gabeko jardueretan.
4. IPPC ez diren jarduerak ikuskatzea.

5. Hondakinak kudeatzeko araudiari lotutako ikuskapena, hondakinak autonomia-erkidegoen artean lekualdatzea barne.

Azken ildo estrategikoak zeharkakoak dira, eta oinarritzakoak, ikuskapenaren funtzionamendu eta koordinazio onerako; beraz, urteko programetan kontuan izango da dauden baliabideek jarduera horietarako eskaintzen duten arduraldia, horien erabilgarritasuna ikuskapenetik etorritako lan-karga doitzeko garaian.

### **5.3.- Ikuskatu beharreko operadoreak lehenestea**

Egin beharreko ikuskapen-jardueren aurreko lehenetasuna kontuan hartuta, hurrengo pausoa ikuskapenaren mende egongo diren enpresak zehazteko irizpideak ezartzea da.

#### **1. Lehenestea 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren (kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren Legearen testuategina onartzen duenaren) mendeko jarduerak.**

Kutsaduraren Kontrol eta Prebentzio Integratuaren araudiak ezartzen du IPPC jarduerak ikuskatzeko maiztasuna ezarri behar dela gutxienez irizpide hauek jasotzen dituen arriskuen ebaluazio baten bidez:

- Instalazioek giza osasunean eta ingurumenean duten inpaktu potentziala eta erreala, igorpen-mailak eta motak, tokiko ingurumenaren sentiberatasuna eta istripu-arriskua kontuan hartuta.
- Ingurumen-baimen integratuko baldintzen betetze-historia.
- Titularrak parte hartzea ingurumen-kudeaketa eta -ikuskaritzako EMAS sisteman, apirilaren 5eko 239/2013 Errege Dekretuaren arabera, zeinak ezartzen baititu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 25eko 1221/2009 (EE) Erregelamendua (erakundeek ingurumen-kudeaketa eta -ikuskaritzako Europako erkidegoko EMAS sisteman beren borondatez parte hartzeari buruzkoa) aplikatzeko arauak eta 761/2001 (EE) Erregelamendua eta 2001/681/EE eta 2006/193/EE Erabakiak indargabetzen baititu.

Ikuskapen Zerbitzuak, araudia betetzeko (815/2013 Errege Dekretuaren 23. artikulua) arriskuari emandako ikuskapenen maiztasuna zehaztuko du, IRAM (Integrated Risk Assessment Method) metodoak Ingurumen Arriskuen Ebaluazio Sistematorako duen Prozedura Orokorra aplikatuz.

#### **2. Lehenestea 1013/2006 (EE) Erregelamenduaren mendeko (hondakinak lekualdatzeari buruzkoa, 660/2014 (EB) Erregelamenduak aldatua) jarduketak**

Hondakinen mugaz gaindiko lekualdatzeak ikuskatzeko jarduketak lekualdatzean parte hartzen duten establezimendu, enpresa, negoziatzaile, agente edo garraiolariari egin ahal izango zaizkie, jatorria edo helburua Planaren lurralde-eremuan dagoenean eta planaren lurralde-eremuaren barnean lekualdaketa errepidez, trenez, ibai-garraioz edo itsas garraioz egin bitartean.

Ikuskapenen lehenetasunak ezarriko dira arriskuen ebaluazio batean oinarrituta. Ebaluazio horrek bere barnean hartuko ditu hondakinen fluxuak eta legez kontrako lekualdatze-iturri espezifikoak, eta kontuan izango dira, hala dagokionean eta horiek eskura daudenean, informazio-zerbitzuek jasotako datuak, esaterako, polizia- eta aduana-ikerketari buruzko ikerketak eta delitu-jardueren analisia.

Ebaluazio horren helburua izango da, besteak beste, eskatuko diren ikuskapenen gutxieneko kopurua zehaztea, establezimendu, enpresa, negoziatzaile eta hondakinen lekualdatzeetako edo dagokien balorizazio edo ezabaketako kontrol fisikoak barne. Halere, lehenengo urteak metodologia aplikatzeko behar den informazioa jasotzeko izango dira.



**3. Lehenestea 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren (kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren Legearen testu bategina onartzen duenaren) mende EZ dauden jarduerak.**

Atal honetan jasotzen diren legeztatu gabeko jarduerak lehentasuna izango dute gainerakoan aldean.

Legeztatutako jardueren ikuskapenean, ikuskapen-jarduerak lehenesteko irizpidea jarduerari lotutako ingurumen-arriskuan oinarritzen da. Operadore horien barnean lehentasun handiagoa izango dute hondakinen, hala arriskutsuen nola ez-arriskutsuen, jarduera kudeatzaileek gainerakoan aldean.

**4. Ingurumen-arazoengatiko edo ingurumen-intereseko eremuak babesteagatiko jarduketan lehentasuna.**

Gauzatu beharreko jarduketak problematikari edo babestu beharreko baliabide naturalaren kalte-arrisku nagusiari egin dakioken ekarpenean oinarrituko dira. Jarduketa horiek aurretiazko diagnostiko batean oinarrituko dira problematika edo arriskua identifikatu eta karakterizatzeko, ondoren, dagozkien jarduketak zabaltzeko.

## **6. PLANA GAUZATZEA**

---

### **6.1.- Lan-protokoloak**

Plan hau ezarriko da Ingurumena Ikuskatzeko Urteko Planen bidez eta horiek kasu guztietan egokitu egin beharko dira uneko koiuntura ekonomiko eta sozialera, Ikuskapen Zerbitzuaren pertsonalera, aurrekontu-egoerara eta ingurumen-alderdiekin zerikusia duten salaketak, gorabeherak, istripu larriak eta araudiak ez betetzeagatiko kasuak ikertzeko gauzatu behar diren ikuskapenetara. Salaketa, gorabehera eta istripu larrietatik eratorritako programatu gabeko ikuskapen hauek lehentasuna izango dute programako jarduketan aldean eta ahalik eta azkarren egingo dira.

Ingurumena ikuskatzeko programek, erreferentzia gisa, puntu hauek izango dituzte:

- HITZAURREA
- PROGRAMAREN HELBURUAK
  - HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA PROIEKTUAK
  - IKUSKAPEN-PROIEKTUAK: HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA XEDEAK
- GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA
- INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA
- KONTROL-PLANA
- INGURUMEN-ARAUDIA ETA -DIZIPLINA
- INGURUMEN-IKUSKAPENERAKO ETA KONTROLERAKO PROGRAMA BERRIKUSTEA

Urteko programak, era berean, proiektuen bidez garatuko dira. Proiektuak ikuskatzeko teknikariek gidatuko dituzte. Proiektu bakoitzaren arduraduna arduratuko da proiektu-dokumentua lantzeaz, hau da, helburuak, jarduketak, adierazleak, gauzatze-epeak eta segimendua ezarriko diren proiektu-dokumentua lantzeaz. Proiektu bakoitzean gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak zehaztuko dira, baita behar diren prozedurak eta jarraibideak ere. Proiektu guztiek urteko programaren oinarria osatuko dute. Zehazki proiektuek puntu hauek garatzen dituzte:

- AURREKARIAK
- PROIEKTU MOTA
- HELBURUAK ETA XEDEAK
- JARDUKETA-PLANA
- ADIERAZLEAK
- SEGIMENDUA
- BALIABIDEAK
- KRONOGRAMA
- TXOSTENEN ZERRENDA

### **6.2.- Programatutako eta programatu gabeko ikuskapenen prozedurak**

Programatutako ikuskapenak urteko programen proiektuei lotuta daude eta programatu gabekoak abisu, gorabehera eta istripuen kexa eta salaketen kudeaketari.

Programatutako ikuskapenek integratuak izateko bokazioa dute, ingurumen-alderdi bakoitza ebaluatuz, zehaztasun handiagoz berrikusiko diren puntuen informazioa eta plangintza prestatu baitaiteke.

Ikuskapen programatuak hasierako prestatze-fase batean oinarritzen dira eta, bertan, ikuskatu beharreko instalazioari buruzko informazio administratibo guztia biltzen da, baita kontuan izan beharko diren ingurumen-alderdi garrantzitsuenei buruzkoa ere. Bigarren pauso batean egiaztatu egiten dira ikuskapen-akta batean bisitan zehar egiaztatutako alderdiak eta, azkenik, dagozkion eginkizun administratiboak gauzatu dira.

Adierazi behar da Ingurumen Baimen Integratuetan (IBI) ezarritako baldintzak betetzen diren ala ez egiaztatzeko gauzatu diren ingurumen-ikuskapenetan jarraitu egiten dela aurrez deskribatutako sekuentzia, 2010/75/EB Zuzentarauak, igorpen industrialei buruzkoak, ikuskapenerako eta txostenetarako ezartzen dituen gutxieneko betekizunak sartuz. Zuzentzari horren transposizioa egin zuen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuak (igorpen industrialen Erregelamendua onartzen duenak eta kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duenak). Horrela, ikuskapenaren amaierako txostena gauzatu, tramitatu eta argitaratu da. Txosten horretan agertu beharko dute instalazioak Ingurumen Baimen Integratuko baldintzak betetzen dituen ala ez adierazten duten ondorioek.

Programatu gabeko ikuskapenak, programatutakoen aldean, jarduketa eginarazi duen arazo edo gorabeherarekin erlacionatutako alderdietara mugatzen dira. Horrelako ikuskapenetan jarduteko malgutasun handiagoa ahalbidetzen duen jarduketa-prozedura egokitzen da.

Ikuskapen Zerbitzuak ikuskapen Gida eguneratu egiten du teknikariek aurrez jaso gabeko eginkizun berri bat egin behar dutenean. Gidaren helburua da ingurumen-alderdi bakoitzean egiaztatze-puntuak zehaztea, horretarako metodologia zehaztea, araudiaren interpretazioa eta ingurumen-baimenetan eskatutako baldintzak eskaintzea eta zerbitzuaren jarduketak harmonizatu eta objektibatzea.

### **6.3.- Informazioa kudeatzea**

Ikuskapen-baliabideek sarbidea izan behar dute ikuska daitezkeen enpresen espedienteetako informazio guztira. Ildo horretan, INGURUNET Ingurumen Kudeaketarako Informazio Sistemak aukera emango du, batetik, bestelako unitate administratiboek sortutako informaziorako sarbidea arina eta sinplea izateko eta, bestetik, bestelako unitate administratiboek ikuskapen-espedienteetarako sarbidea emango die.

Ikuskapen Zerbitzuari lotutako prozedura administratibo guztiak elektronikoki kudeatu eta tramitatzen jarraituko da.

Azkenik, adierazi behar da Ikuskapen Zerbitzuak jarraitu egingo duela ingurumen-ikuskapenetako txostenak argitaratzen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, ezartzen duen eran.

### **6.4- Jakinarazpena**

Egindako jardueren jakinarazpenaren eta horien emaitzaren oinarria izango dira Ingurumena Ikuskatu eta Kontrolatzeko Plana, urteko programa eta memoriak eta ikuskapen-proiektuak, honen bidez jakinaraziko direnak:

- a) Ingurumen Batzordearen eta Ingurumenerako Aholku Batzordearen bilerak.
- b) Sailaren webgunea.
- c) Operadoreen ikuskapen-txostenak, IPPCren kasuan, operadoreari jakinaraziko zaizkio eta jendaurrean jarriko dira.
- d) Trantsizio Ekologikoaren Ministeriora bidali behar diren mugaz gaindiko hondakinen lekualdatzeetako jarduketari buruzko urteko txostenak 1013/2006

(EE) Erregelamenduaren (660/2014 Erregelamenduak (EE) aldatua) IX. eranskinaren galdetegi gehigarrian oinarrituak, Ministeriotik bete dadin aipaturako Erregelamenduaren 50. artikuluan ezarritakoa. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzak argitaratu egingo du, besteak beste, Internet bidez, 24. artikulutik eta 50. artikuluari buruzko (1.,2. eta 2.bis apartatuak) txostenaren zatia, baita IX. eranskinaren 5. taula ere, egokitzat jotzen duen edozein azalpenekin batera.

- e) Alde interesdunekin izaten diren bilerak, adibidez, ikuskapenaren mendeko operadoreak, jardueren auzotarrak, gobernuz kanpoko erakundeak, etab.

## **7. PLANAREN SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA**

---

### **7.1 Segimendua**

Plan honen eta plana garatzen duten programen segimendua argitaratuko den urteko memoria baten bidez egingo da. Urteko memoriak puntu hauek izango ditu:

- HITZAURREA
- PROIEKTUEN ZERRENTA
  - JARDUKETAK
  - ONDORIOAK
- EMAITZAK
- ONDORIOAK

Bestalde, Zerbitzuak garatzen dituen proiektuen segimendu partzialen txostenak landuko dira, baina horiek ez dira argitaratuko. Halere, urteko memorian horien emaitzak jasoko dira.

### **7.2.- Emaitzen ebaluazio jarraitua: jarduera eta emaitzen adierazleak.**

Plan honek barnean hartzen du emaitzetan eta arriskueta oinarritutako ikuskapen-plan bat. Proiektu bakoitzak proiektuen ebaluazio jarraitua egiteko kontuan izango diren adierazle zehatzak finkatuko ditu. Horrela, proiektu desberdinen adierazleek aginte-koadroa osatuko dute eta horren bidez urteko programazioa eguneratu edo aldatuko da identifikatzen diren lorpen edo oztopoak kontuan izanda.

Emaitzak kuantifikatu eta kualifikatzeko adierazle mota hauek definitu daitezke:

- Jarduera-adierazleak: Urteko programaren gauzatze-maila eta bere denbora-bilakaera eta bere efikazia berrikusten laguntzen duten emaitzei buruzko informazioa ematen dute. Adierazle hauek hauen guztien informazioa laburbiltzen dute: ikuskapen kop., kontratatutako laguntzak, egindako ikuskapen kop., errekerimenduak, zehapenak, etab.

- Emaitzen adierazleak: Araudia betetzeari eta ingurumen-hobekuntzei buruzkoetan bana daitezke. Azken horiek kuantifikatzea zailagoa da araudi-betetzeari buruzko adierazleak kuantifikatzea baino.

### **7.3.- Alderaketa beste sistema batzuekin**

Ikuskapen Zerbitzuak kide izaten jarraitzen duen REDIA eta IMPEL sareek ikuskapenen plangintza eta gauzatzearekin erlazionatutako proiektuak garatzen dituzte. Horietan, normalean alderatzeko lehen fase bat egiten da Ikuskapen Zerbitzuetako funtzioak nola egiten diren aztertuz, gainerako agintariei erreferentzia gisa balioko dieten jardunbide egokiak identifikatze aldera. Horrekin, nolabait lortzen da ikuskapen-irizpideak harmonizatzea, bai autonomia-erkidegoetan bai estatu kideetan.

Proiektu horietan parte hartzeak aukera ematen du ikuskapenak arautu eta gauzatzeari buruz hartzen ari diren erabakietan, hala estatuan nola European, esku hartzeko. Gainera, zerbitzua koka daiteke estatuan eta European alor hauetan gauzatzen ari diren jarduketan testuinguruan. Horrek erraztu egiten du baliabideak optimizatzen eta era proportzionatuan jarduten egoera bakoitzean.

## **8. IKUSKAPEN-PLANA BERRIKUSTEA**

---

Plan hau indarrean izango da 2019 - 2026 aldian. Plana ofizioz berrikusiko da plan honen oinarria den araudian edo gauzatzeko oinarrizko baldintzetan aldaketa esanguratsu bat gertatzen bada. Kasu horretan, Plana berrikusiko da eta jatorrizko Planaren lanketa, jendaurreko informazio eta onarpen tramite berdinen mende egongo da.

Plana berrikusi behar dela justifikatzeko behar besteko garrantzia ez duten aldaketak urteko programetan sartuko dira plana gara dadin.